

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 10a / 513. zenbakia

## Umeak ezagutzeko eskolak

Seme-alaben eta gurasoen arteko harremanetan  
laguntzeko eskolak antolatu ditu Udaleko Ongizate Sailak



KIROLA: ERRUGBI TALDEA, HURRENGO FASEAN /9 • KULTURA: EKIN ELKARTEAREN IKASTAROAK /10

# 1 euskal selekzioaren cd-rom jokoa




**eskatu  
orain!**

**902 010 735**  
Telefona 24 orduz.

**Imajina dezakezun guztia!**




Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!



Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu:  
Munduko Txapelketa,  
Lagun arteko partiduak,  
sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n  
Txilenak, erregateak, jaurtiketak,  
sarrera ikusgarriak, golen  
ospakizunak...  
Giro-soinu aparta,  
Ikurrinak harmailetan...  
Jokoaren estatistikak  
Jokaldi onenen errepikapenak...  
Lau futbol zelai aukeran.  
Partiduak egunez, gaez,  
euriarekin...



**euskal  
selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan  
bidaltze  
gasturik gabe



**35,95  
euro**

Jokoa orain erosiz gero,  
bufanda eta garraioa


**DOAN**

## KALEINKESTA/ Mereziz dau beharpenetan erostie?



**MAITANE OTAMENDI**  
Ikasle

Ez dau merezi. Iguel dutzo apur bat lehenago erostie; azken baten, preziuek ez dittue horrenbeste jeisten. Eta jente larregi ibiltten da. Akaso, bukaeran, trapotxuek geraketan dienien...



**ANTONIO FRUTOS**  
Langillie

Ez naz zain egoten. Zer bait biher izen ezkerro erosi egitten dot. Dana dala, seme-alabak euki ezkerro, merezi dau; izen be, apurtxo bat itxoin ezkerro, dirue aurretiratu leike.



**CARMEN SÁNCHEZ**  
Jubilaua

Neure ustez, merezi dau, bai. Oin 100 balixo dauenak gero 50 balixo badau... aprobetxau biher dala uste dot. Dana dala, horreik prezio merkiok lehenago be ipiñi ezkerro, hobeto.




**JUAN MIGUEL CASADO**  
Langillie

Nik neuk bihera euki ezkerro erosten dot. Zer bait apurtu bajat edo zer bait behar badot, momentuen erosten dot. Ez naz sekule beharpenen zain egoten, eta ez dittut aprobetxetan.



**SONIA DURÁN**  
Langillie

Preziuen desberdintasunaren arabera. Preziuen arteko aldie haundixe bada, bai, baiñe bestela, ez. Hau da, beharpena haundixe danielen bakarrik merezi dau.



**ROBERTO GABILONDO**  
Langillie

Uste dot baietz. Beste batzuek diru gehixago euki-ko daue, eta akaso ez. Baiñe neuri, behintzet, iguel jat. Edozelan be, umiendanien bakarrik merezi ondo dago.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK JAIOTZARI KALTEAK** San Andresko parrokiako komisiok jakinarazi digunez, Gabon hauetako jaiotzak hainbat kalte jasan zituen, eta horixe salatu gura dute. Dena dela, 2001-2002ko Gabonetan jarri zutenarekin alderatuz, pozik agertu da komisiok. Aurten goa leku hobean jarri dute, kalte txikiagoak izan ditu eta, gainera, erdialdean jarri dutenez, jende gehiagok ikusi du.

## ETABARRUAN...

KIROLA /8

### Urtea hasteko, hiru puntu

Mondrak 3-2 irabazi zuen Seguraren kontra. Bihar, Soralezaren kontra jokatu du etxeko taldeak.

KULTURA /10

### Oihana Garrori elkarrizketa

Oihana Garro arrasatearrak eskultura erakusketa izan du Bilboko La Brocha galerian.

ZAHARRAK /13

### Bainuetxe Programa

Immersok abian jarri du hirugarren adinekoak bainuetxeetara joateko programa berria.

## ASTEKODATUA

# 600

### UME INGURU IZAN DIRA EGUNEKO TXIKILANDIAN

Txatxilipurdik urtero antolatzen duen Gabonetako Txikilandia parkean ume mordoia izan dira urtarrileko lehenengo lau egunetan. Batez beste, eguneko 600 ume izan dira parkean jolasten.

## BESTEKEESANA

**“ Arrasateko kooperatiba esperientziaren gainean zertxobait ezagutzen nuen, baina ez nuen horrenbeste espero. (...) Askok harritu nau, bi arrazoiengatik: bata, elkartasun- eta elkarlanean oinarrituta dagoelako; eta bestea, enpresak izan duen arrakastarengatik. Ez da ohikoa filosofia kooperatiboa edukita, horrelako emaitzak lortzea. (...) Horrez gain, Arizmendiarrietaren irudiak asko harritu nau. Hark egindakoa ezagututa, izugarritzko gizona zela ikusi dut; hark zeukan borondatea eta adorea ez ziren edonolakoak (...) MCCk nazioartean arrakasta enpresariala lortzen badu eta kooperatiben baloreak zabaltzen baditu, bere helburua bete egingo du”**

IGNACIO RAMONET  
‘T.U. LANKIDE’/02-12-20

## HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



*Denok ez dugu urte ona merezi*

**H**emen, txoko honetan idaztea eskatu zidatenean, poztu egin nintzen. Hasi- ran ez nuen zalantzarik izan eta polita iruditu zitzaidan, baina nire estreinako eguna hurbildu ahala beldurra handiagotu egin zen, barruan tripak nahasten dabilen arra bezala. Hala ere, pentsatu nuen “Tira, herritarrok zer bait idazteko lekua bada hau, zergatik ez dut neuk ere idatziko ba?”. Ba tira, hemen nauka- zue, urte berri honen lehen arnasa- rekin batera, zuei zer bait kontatzeko asmotan. Berriz ere, urte berri bati ekin diogula eta, pentsatu dut hemendik nire zorionik beroena zenbaitzuei ematea, baina hobeto ez, inork gutxik merezi baitu egindako lanagatik esker ona. Zoriona merezi ez dutenen zerrenda egiten hasiko banintz ordea... asko mindu litezke eta hobeto alde batera utziko dut.

Bestalde, otu zait ere azkenotan bazterrak astintzen

dituzten gaietako bati heldu eta nik ere neure astinalditxo ematea. Baina ez, nahiago izan dut nire osasun mentala zaindu eta hausnarketarako tartea “sasi-intelektualen” esku uztea. Zertarako hitz egin Ibarretxeren traizio berriaz? Zertarako salatu euskaldunok bizi dugun egoera larria? Zertarako hartu gogoan herrian falta zaizkigunak? Ziurrenik ez duelako ezertarako balioko, edo bai, orain artean zer bait, gutxi bada ere, esan dut eta... Ibarretxeren plana traizioa izatea, euskaldunon

etorkizuna kolokan egotea edo falta direnen duintasuna gogoraraztea zer bait esatea badelako, ezta?

Beno, zer bait idatzi dut bederen. Baliteke asko idatzi eta ezer esan ez izana, baina tira... gaurkoz nahikoa. Urte berri ona? Agian ez duzu merezi.

Baina ahaztu barik, besarkada bat konpromiso eta eguneroko borrokarekin lanean diharduzuen guztioi!

**“Inork gutxik merezi du egindako lanagatik esker ona. Zoriona merezi ez dutenen zerrenda egiten hasiko banintz...”**

# Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran  
ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
MAKETAZIOA  
Alex Azkarate  
ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaiñzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Julen Aranguren  
LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88  
ISSN  
0214-4654  
TIRADA  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 10**  
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30

**ZAPATUA, 11**  
Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09

**DOMEKA, 12**  
Español, Araba etorb..... 943 79 18 65

**ASTELEHENA, 13**  
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15

**MARTITZENA, 14**  
Azkoaga, Iturriotz 33..... 943 79 79 99

**EGUAZTENA, 15**  
M. Corcuera, Aranbarri 1..... 943 79 22 26

**EGUENA, 16**  
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea..... 943 03 53 00  
Igualatorioa..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak..... 943 79 39 00  
Emakumeak..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11

**LARRIALDIAK**  
SOS Deiak..... 112  
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76  
DYA..... 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua..... 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan..... egun osoa

**Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
- Especialitateak..... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak..... 943 45 87 44

**ERTZAINZAK**  
Arrasate..... 943 79 71 99

**SUHILTZAILAK**  
Udal taldea..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea..... 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62  
Gasa..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak..... 943 79 12 22  
PESA..... 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza..... 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron..... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Joan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON**  
Urtarrilaren 13an eta 14an, astelehenean eta martitzenean, Txirri, Mirri eta Txirribitonek *Trikitraka Trikitron* ikuskizuna eskainiko dute. Emankizuna 19:00etan izango da, eta telebistarako saioa grabatuko dute.

**DROGEN GAINEAN**  
Urtarrilaren 13tik 20ra bitartean, *Drogak: gizarte gaia* lelopean erakusketa jarriko dute Monterron kultura etxean. Eusko Jaurlaritzak prestatu du erakusketa.

**GAZTEEN KONTSEILUA**  
Gazte Bulegoak Arrasateko Gazteen Kontseiluaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaileak Arrasaten bizi, lan egin edo ikasten duten gazteak izan beharko dira, eta hiru kategoriatan banatu dituzte: 5 eta 12 urte bitarteko gazteak, 13 eta 17 urteko gazteak eta 18 eta 30 urte bitartekoak, hain zuzen ere. Lanak zuri-beltzean zein koloreetan egin daitezke, eta teknika librean izango da. Sari bana banatuko dute kategoria bakoitzean: jostailu sorta bat, kirol material sorta bat eta 750 euro. Lana aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da.

**AEDrenAGENDA**

**SENDABELARREN GAINEAN**  
Datorren eguaztenean, urtarrilak 15, sendabelarrekin lotutako taldea eratzeko batzarra deitu dute. AEDko bulegoan egingo dute, 20:00etan.

**BERTSOZALEAK**  
Egubakoitz iluntzetan bertsozaleak AEDko txokoa batzen dira. Zu zeu ere animatu!

**URBANOENORDUTEGIA**


**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Informatika arloko IMI zentroa itxi egin zuten**

Zortzi urte zabalik egon ondoren, 1993. urtea iristearekin batera, informatika ezagutza bultzatzeko IMI zentroak ateak itxi zituen. Udalak berez bazuen interesa IMI programarekin aurrera jarraitzeko, baina Jaurlaritzak amaitutzat eman zuen, eta bertan behera utzi zuten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Takatekua"**




Kolpea, zartara, zartatekoa.  
—Baloiai jo biarran orkatillan emun jostan kriston takatekua.

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Gorka Rubialesekin Austria ezagutzera**

Gorka Rubiales arrasatearra Austrian bizi da. Musikologia ikasten ari da han. Zehazki, Austriako Innsbruck hirian bizi da, baina Gabonetarako etxera bueltatu dela aprobetxatuta, harekin izan gara. Innsbruck hiria zelakoa den kontaktu digu Gorkak. Elkarrizketa hori zapatuan eta domekan izango duzue berrirontzungai, goizeko 11etan. Bestalde, garai baten herrian zeuden zinemen gainean Eusebio Iñarrarekin izandako solasaldia ere izango da entzungai.



**J. M. Elexpurrekin, euskararen txokoa**

Hemendik aurrera, astelehenero, Juan Martin Elexpurrekin egingo dugu bat. Elexpurrekin gure euskalkian erabiltzen diren hainbat esamolde jakinaraziko dizkigu. Galduta edo gutxi erabiltzen diren berba batzuk gogoraraziko dizkigu, eta euskara jatorrean esamolde batzuk zelan esan ere esango digu. Datorren astelehenean, bestalde, LKS taldeko kide batekin berba egingo dugu, enpresetako zuzendariak hezteko duten moduez.

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Martitzena, 7 **2 °C**

**MAXIMOA**  
Eguena, 2 **19 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)** **45,6 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 1	19 °C	9 °C	0,6 l/m²
Eguena, 2	19 °C	15 °C	— l/m²
Egubakoitza, 3	16 °C	10 °C	— l/m²
Zapatua, 4	9 °C	4 °C	12,9 l/m²
Domeka, 5	8 °C	5 °C	20,4 l/m²
Astelehena, 6	7 °C	6 °C	9,1 l/m²
Martitzena, 7	9 °C	2 °C	2,6 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: elemerideak, zozketak, zorian agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tartea.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

**ASTELEHENA**  
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

**MARTITZENA**  
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

**EGUBAKOITZA**  
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta

**ZAPATUA**  
20:00 Asteko elkarrizketak: Eusebio Iñarra eta Gorka Rubiales.

**DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak

## ASTEABIHITZETAN

### Elkartasun fondoa sortzeko proposamena

Datorren maiatzaren 21ean ospatuko da MCCren VIII. Kooperatiba Kongresua, alegia, taldeko kooperatiba guztien batzar nagusia. Bertan lau txosten aztertuko dituzte, eta horien artean aipagarriena, elkartasun fondo korporatiboa sortzea, industriaren alorreko kooperatiben galerak konpentsatzeko helburuarekin.

TU Lankide argitalpenaren arabera, industri kooperatiba guztiek diruz lagunduko dute elkartasun fondo hori, urtero mozkinen ehuneko biaren balio bera duen ordainketa eginez.

### Berritasunak Kirol Zerbitzuetan

Aurten, Arrasateko Kirol Zerbitzuetan hainbat berritasun izango dira, eta honakoak dira garrantzitsuenak: abonua mota berri bat, Debagoieneko Kirol Txartela eta Musakolako kiroldegiko igerileku klimatizatuak ordu erdi lehenago irekiko dituztela.

Debagoieneko Kirol Txartela ibarreko bizilagunek aspaldi eskatzen zuten aukera bat da. Abonua mota horri esker, Debagoieneko hainbat instalaziotara joateko aukera izango da. Horrez gain, aurten, kiroldegiko igerileku klimatizatuak goizeko zazpi eta erdietan irekiko dute; albiste ona igerilari goiztiarrendako.

### Lapurretak berriro ere

Berriro ere lapurretak egiten ari dira Arrasaten. Handiena urtarrilaren letik 2rako gauean izan zen, Olarteko Sport kirol dendan. Lapurrek zenbait jantzi eramane zituzten: besteak beste, Gore-Tex txamarrak. Horrez gain, Otamendi harategian leiho bat apurtu zuten joan den zapatu gauean, baina alarmak jo, eta lapurrek ihes egin zuten. Errege egunean, berriz, Mertxe arropa dendan sartzen ahalegindu ziren.



### Txikilandian, kiroldegia jolastoki

Urtero moduan, umeek, Olentzeroren opariez gain, gaztelu puzgarriekin eta beste hainbat jolasekin gozatzeko aukera izan zuten Musakolako kiroldegian. Txatxilipurdik antolatuta, aurten ere jolasparkea izan da hilaren 2tik 5era arte, eta ume piloak ibili da jolasparkean.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Agindutakoa bete

**B**este urte bat bukatu da eta berri bat hasi dugu. Urtea bukatzera doan heinean, urte horretan igarotakoaren eta egindakoaren gaineko balantzea egiten saiatzen gara, horretaz guztiaz ikasteko asmoz. Urte berriari begira, ordea, hainbat asmo eta plangintza egiten ditugu, urtea hobeto aprobetxatzeko asmoz-edo. Baina kasu gehienetan ez

dugu iraganetik askorik ikasten (mundua zelan dagoen ikustea besterik ez dago!) eta urte berriari begira egindako plangintza asko ez ditugu betetzen. Gezurti hutsak garelako edo alfer handiak garelako!

2002a ez da nazioartean ona izan, ezta Euskal Herriari erreparatzen badiogu ere. Horregatik, urte berriari begiratuko diot. Horren

harira, Brasilgo presidente berria, Lula delako hori, gogora etorri zait. Urrunera jo badut ere, Lula-k berak piztu dituen ilusioak ez dira makalak izan. Eta, egia esanda, orain arte agindu dituen ekimenak eta jarri gura dituen gailuak oso bidezkoak dirudite. Nazioartean eta etxean bertan bizi dugunaren aldean ez da gutxi! Ea agindutakoak betetzeko gai den (eta uzten dioten), eta ez dituen haizeak edo beste edozerk eramaten!

## ASTEKOIRUDIA



AITOR URIZAR

### AURTENGO BEHERAPENETAN AUKERA ONAK EGONGO EI DIRA

Adituen esanetan, aurtengo beherapenetan prezio onak eta material hobea izango ei da. Orain arteko negua epela izan denez, komertzioek ez dituzte neguko arropak gura beste saldu, eta merkealdiak horretarako aprobetxatuko dituzte. Hala ere, komeni da ohar batzuk gogoan izatea: merkealdiak gutxienez

astebetekoak eta gehenez martxoaren 31ra artekoak izan daitezke; erosten dugun produktuak lehen zuen salneurria erakutsi behar du; eta erosi ostean ordainagiria eskatzea komeni da, produktuak akatsen bat izanez gero, hura aldatu ahal izateko. Erosi beharrekoa erosi, baina buruarekin. /X.U



EGIN BEZAGUN  
BARKOTZAK GURE  
AHALEGINTXOA



**Zahar Berri**  
Pablo Uranga 4, behea  
Telf.: 943 711 721  
943 771 228  
zaharberri@aedeikarrea.com

HEZKUNTZA / Gurasoendako eskolak izango dira

# Seme-alabekin izaten diren zalantzetan laguntzeko

UBANE MADERA

Udaleko Ongizate Sailak 0-6 eta 7-12 urte dituzten seme-alaben gurasoendako lantegiak antolatu ditu. Seme-alabekiko dituzten kezka argitzen laguntzeko eskolak dira. Urtarril bukaera aldera edo otsail hasiera aldera hasiko dira eskolak.

Oro har, seme-alabekin modu positiboan jokatzeko orientabideak ematea da eskola horien helburua. Derrigorrezko gaiak zein auzerazkoak landuko dituzte gurasoek. Horrela, drogen prebentzioa, hezkidetzaz (emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna) eta sexualitatea derrigorrez landuko dituzte. Hortik aurrera, gurasoek aukeratu ahal izango dute zein gai landu gura duten (adibidez, umeen garapen psikologikoa, autoestimua zelan indartu, arauak modu hezgarrian ezartzeko irizpideak...).

Eskolak bi mailatan banatuko dituzte: batetik, hastapen mailako eskolak (lehenengo aldiz doazeneandako) izango dira; eta, bestetik, sakontze mailakoak (iaz, mota horretako eskoletan parte hartu zutenek aurrera jarraitzeko).

## ZELAKO ESKOLAK

Bederatzi saio inguru izango dira, astero bat; eta saio bakoitzak ordu eta erdi iraungo du. Ikastaroak Lantegi Eskolako ikasgeletan emango dituzte (INEMen parean) eta sei euroko matrikula ordain-



LEIRE KORTIABARRIA

Lantegi Eskolako ikasgeletan izango dira eskolak.

**12 eta 18 urte arteko seme-alaben gurasoendako eskolak ere emango dituzte**

du beharko da.

Interesa duenak 943 79 09 00 telefonora deitu behar du eta prebentzio teknikariarengatik galdetu. Edo, bestela, [prebentzio@arrasate-mondragon.net](mailto:prebentzio@arrasate-mondragon.net) helbidera mezu

bat bidali behar du. Hori guztia urtarrilaren 17a (egubakoitza) baino lehen. Eskolen gainerako ezagarrak (ordutegia, hizkuntza...) gurasoek aukeratu dituzte.

Bestalde, aurrerago, 12 eta 18 urte arteko seme-alaben gurasoendako eskolak emango dituzte.

## IAZ ERE BAI

Iaz ere egin zituzten guraso eskolak. 150 bat lagunek parte hartu zuten, eta hastapeneko eskolak eman zituzten. Arrasateko ikastetxe guztiak parte hartu ohi dute ekimen horretan. Aurten ere hala egingo dute. Horregatik, ikastetxei zein guraso elkartei esker eman gura dizkie Udalak.

Los complace comunicarnos nuestro enlace matrimonial que se celebrará el próximo día 3 de Agosto, a las 12:30 del mediodía en la iglesia parroquial de Ntra. Sra. de la Asunción de Miranda de Arga.

Junto con nuestras familias os invitamos a que nos acompañéis en este feliz día.



ZAPPING ARGAZKI DENDA

Ezkontzatarako gomitat egiteko ereduak izango dira, adibidez.

## Oharrak euskaraz idazteko ereduak bilduma

ARRASATE PRESS

**Oharrak euskaraz idazteko ereduak bilduma argitaratuko du Arrasateko Udalak. Helburua da oharrak idazteko orduan gaztelaniara jo beharrean jendeak ohar horiek euskaraz idatzi ditzala.**

Guztira, 48 orrialdeko bildumak dira; eta 80 bat eredu ditu bilduma bakoitzak. Hala adierazi dio Euskara batzordeburu Jose Felix Diaz de Tuestak Arrasate Irratiari.

Euskara batzordeburuak esandakoaren arabera, ekimen horren helburua da "herritarrei euskara eguneroko bizimoduan erabiltzen laguntzea, eta idatziak euskaraz egin nahi dituztenean egiten laguntzea". Oro har, eus-

karaz idatzi gura duenari euskaraz idazteko erraztasunak ematea da Arrasateko Udalak lortu gura duen helburua.

Mota askotako ereduak izango dira bilduma horretan: adibidez, eskelak egitekoak, eskerroak egitekoak, ezkontzatarako gomitat egiteko ereduak...

Jose Felix Diaz de Tuestak esandakoaren arabera, datorren hilaren hasiera aldean argitaratuko dituzte bildumok eta hortik aurrera banatuko dituzte. Horrela, AED elkarteak bazkide guztiak dohainik jasoko dute etxean; baita ere, Arrasateko Udalarekin hitzarmena sinatuta duten erakunde guztiak edo Udalarekin harremanak euskaraz izaten dituzten herritar guztiak. Guztira, 2.500 bilduma inprimatuko dituzte.

## Frekuentzia aldatu du TVEren lehenengo kateak

UBANE MADERA

**Arrasateko Udalak jakinarazi gura die herritarrei 2003. urte hasieratik aurrera TVE1ek bere emisio frekuentzia aldatuko duela. Hain zuzen ere, zortzigarren kanaletik 43. kanalera aldatuko dute oraingo hilean.**

Horrela, bada, orain arte, TVE1 zortzigarren kanalaren bitartez emititzen zuten, VHFn; baina Europako agindu baten eraginez, gainerako kateak erabiltzen duten bide bera erabili beharko du emisiorako TVE1ek: UHF, alegia. Horren ondorioz, kanal zenbakia ere aldatuko dute: lehen esan bezala, 8.etik 43.era aldatuko dute.

## MURUKO SEINALEAREN ARABERA

TVE1en kanal aldatuta horrek telebistako seinalea Muruko erre-

pikagailutik hartzen duten herritarrengan izango du eragina; hau da, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako herritarrengan. Hortaz, komeni da herri horietan kanal berria lehenbailehen sintonizatzea. Izan ere, nahiz eta oraindik behin betiko aldatuta egin barik egon, dagoeneko 43. kanalean ere har daiteke TVE1en seinalea.

Eta, kanala berriro sintonizatzen ahaleginduta, ikusten bada telebistak ez duela kanal berria sintonizatzen, orduan, antenistari deitu beharko zaio.

Esan bezala, TVE1en frekuentzia aldatuta hil honetan egingo dute; hala, zortzigarren kanala ezabatu eta berrogeita hirugarrena bakarrik geratuko da. Edozelan ere, aldatuta egin baino astebete lehenago berriro abisatuko dute.

## Drogen gaineko erakusketa egongo da Monterronen

UBANE MADERA

**Datorren astean, Droga gizarte gaia izenburuko erakusketa ikusgai egongo da Monterronen. Informazio orokorra, bideo bitartez eginiko elkarrizketak eta argazkiak izango dira, besteak beste, erakusketan.**

Zazpi gai landuko dituzte erakusketan: alkohola; drogak eta legea; drogak eta bazterkeria; drogak osasun arazo moduan; harreman txerak; drogen kalteak zelan gutxitu; eta, azkenik, dopina kirolean. Horrez gainera, drogen gaineko 50 argazki izango dira eta drogekin lotutako arlo batzuen gaineko informazioa ere izango da: zer den droga, drogen historia, drogamenpekotasuna, EAEko gazteen kontsumoaren gaineko datuak eta drogei aurre egiteko bideak, besteak beste.

Eta drogen gaineko berbaldiak ere izango dira Monterronen. Jende ezagunak drogen gainean berba egingo du, bideo bitartez. Manuel Vázquez Montalbánen, Espido Freireren, Felix Linaresen eta Aurora Beltranen iritziak entzun ahal izango dira, beste batzuen artean.

Besteak beste, erakusketaren helburua da drogak kalean dardela eta jendeak erabili egiten dituela erakustea; oro har, drogak ez direla marjinalak nabarmendu gura dute.

## ASTE OSOAN

Esan bezala, erakusketa datorren astean barrena izango da, astelehenean domekara. Astelehenean izango da aurkezpena, eta, besteak beste, Gemma Calvet etorriko da, Eusko Jaurlaritzako droga gaietako zuzendaria.

## LABUR

### Musakolan, Zabaletako zubien lanak, geldi

Dagoeneko hiru hilabeteko atzerapena dute Zabaleta aldean egiten ari diren lanak. Are gehiago, une honetan, lan horiek geratuta daude. Hala jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzak Arrasateko Udalari.

Kontua da, Bergaratik datorren autobideko lanen eta Arrasateko kolektoreko lanen ondorioz, Zabaletako zubien proiektuan aldatetak egin behar izan dituztela. Horrek batera, hango gasaren hodiak ere desbideratzen ari dira. Horren guztiaren ondorioz, lanok geratuta daude.

Dagoeneko zubi bat eraiki dute Musakolan, industrialde barrukoa. Baina garrantzitsuena, Arrasate sarrerakoa, oraindik bukatzeko dago.


## IBAI-ARTEREN SARIA MARI KARMEN BEITIARENDAKO

**A**benduari zegokion zozketaren saria martitzenean banatu zuen Ibai-arterek. 3.000 eurorekin saritutako txartela Olarte kalean dagoen Otamendi harategian eskuratu zuen Mari Karmen Beitiak. Otamendi harategikoek jakinarazi digutenez, betiko bezeroa dute Mari Karmen Beitia. Oraindik ez daki zer egingo duen irabazitako diruarekin, baina badauka non gastatu.



## JUAN MANUEL LAFUENTE, ZORTEA BANATZEN

**J**oan den aspaldian, Juan Manuel Lafuente gazte mondragoetarra Arrasateko hainbat txokotan ikusi dugu, loteria saltzen, baina normalean Kutxa ondoan egoten da. Urria ezkerordezkapenak egiten ari da, eta badirudi gustua hartu diola lotera saltzeari. Orain, dirua banatzea tokatzen zaio.



## SANTAMASETAKO ZOZKETA AURORA OJANGURENENDAKO

**A**urora Ojanguren izan da Santamasetako txerriaren zozketaren irabazlea. Aurorak 01897 zenbakidun txartela zeukan, eta 500 euro irabazi ditu. Lehenago txerria zozketatzen zuten, baina azken urteotan dirua banatu izan dute. Argi dago Gabonetako gastuei aurre egiteko dirulaguntza ederra dela.



## ERREGE KABALGATA ARRASATERA ERE IRITSI ZEN

**A**rratsaldeko zazpi eta erdietan iritsi ziren hiru Errege Magoak Arrasatera, euren laguntzaileekin batera. Arrasateko kaleetan gaztetxoek eta horren gazteak ez ziren ere zain izan ziren. Kantuak, musika... Denetik izan zen hiru Errege Magoei ongietorria egiteko, baina guztiak gauza bera zuten buruan, opariak. Erregeek gau osoa izan zuten etxez etxe opariak banatzeko, baina etxe batzuetan ezer gutxi utzi zuten, ume guztiak ez dira-eta txintxoak izan.

## Mondrak 3-2 irabazi zion Segurari, urteko lehenengo partiduan

XABIER URZELAI

Urteko lehenengo partiduari ezin zaio gehiago eskatu: golak, faltak, txartel hori eta gorriak, penaltiak, ikuskizuna eta emozioa, azken unera arteko emozioa. Eta, horrez gain, hiru puntuak, jakina. Ez zen oso partidu ona izan, baina Atxabalpera hurreratu zirenak ez ziren aspertu.

Mondrak Seguraren kontra jokatu zuen joan den zapatuan. Norgehiagoka jokatu aurretik argi zegoen urteko lehenengo partidua gogorra izango zela. Partidua Atxabalpen izanda ere, aurrean izan zuten kontrarioa ez zen nolana hiko: Segura taldea. Joan den urtean, erregional mailako talde indartsuenetakoa izan zen, eta aurrean lehenengo postuetan ez badago ere, goiko aldean dagoen taldea da.

Mondrak ez zuen partidua ondo hasi, Segura aurreratu zen eta markagailuan. Huts eta batekoarekin Jon Murumendiarazek penalti jaurtiketan ez zuen asmatu, eta ezin izan zuen partidua berdindu. Hala ere, minutu batzuk geroago, Jokin Pavok egin zuen banakoa, eta Mondrako jarraitzaileak lasaitu egin ziren.



XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan beheko postuetan dagoen Soraluze izango da kontrarioa.

Banakoarekin gauzak aldatu egin ziren, eta Ekainek bi eta batekoa egin zuen. Emaizta horrekin bazirudien egin beharrekoa eginda zegoela, baina Segurak berdindu egin zuen, eta berriro ere egonezina izan zen harmailetan. Asier Gonzálezek egin zuen hiru eta biko, baina epaileak ere protagonista izan nahi zuen: Alkorta kalera bidali, eta partidua behar baino gehiago luzatu zuen. 96. minutuan, Mondraren

kontrako penaltia adierazi zuen epaileak, eta zaleak sinistu ezinda zeuden. Zorionez, penalti jaurtiketan ez zuten asmatu, eta Mondra 3-2 nagusitu zen. Jokalari bati baino gehiagori on egin dio urte berriak, baina bereziki Ander Bereziartua *Keixi*-k sekulako partidua jokatu zuen.

Oraingo asteburuan, Mondrak Soraluzen jokatuko du, eta gogoan izan etxeko taldea oraindik hirugarren postuan dagoela.

## FOTOKIROLA



### Kencik kontrario gogorra izango du

Bihar, zapatua, Kenci Arrasatek denboraldiko partidu gaitzenetako bat izango du. Iker Zubiriaren mutilek ligako talde gogorrenetako bat izango dute aurrean: Bilboko Siglo XXI, hain zuzen. Kenci bolada onari eusten ahaleginduko da, eta, gaitza izango bada ere, Siglo XXI taldeari irabaztea ez da ezinezkoa. Arrasaten jokatu zutenean etxeokak ondo aritu ziren, eta, galdu egin bazuten ere, bilbotarrek buruhauste ederrak izan zituzten; ea bihar burukominarekin amaitzen duten. /X.U.

## FOTOKIROLA



### AGR Arrasatek ondo hasi du urtea; Arrasatek, berriz, ez

Arrasateko senior mailako bigarren taldeak ez du urtea ondo hasi, baina ez zuen gaizki jokatu. *Pitxi* Herreroren mutilak ondo aritu ziren, baina Arrasateko entrenatzaileak jokalari gutxi izan zituen eskura, eta horrek eragina izan zuen markagailuan. 36-24 nagusitu zen Bidasoa. AGR Arrasatek, berriz, 33-18 irabazi zuen Urnietako taldearen kontra. Erraz nagusitu ziren Bernardo Balerdiren mutilak, eta hirugarren postuan jarraitzen dute. Bihar, zapatua, arratsaldean, Arrasatek Iturripen jokatuko du, Urolaren kontra. Lehenengo taldeak, AGR Arrasatek, berriz, Loiolaren kantxara joan beharko du domeka goizean. AGRk erraz irabazi beharko luke partidua. /X.U.

BESAIDE

### Besaide Mendi Elkartek dagoeneko zabalik du 2003. urteko federatze kanpaina

Federatzeko asmoa duen edozein mendizalek dagoeneko horretarako aukera du Besaide Mendi Elkarteko egoitzan. Orain arte federatuta egon diren Besaideko bazkideek, bestalde, federatuta jarraitu gura badute, lehenbailehen Besaideko egoitzara joan beharko dute, konfirmazio orria betetzera.

Horrez gain, Besaide Mendizale Elkartek urtarrilaren 16an urteroko batzar orokorra egingo du Monterronen. Batzarra arratsaldeko zazpitan hasiko da.

ATLETISMOA

### Zapatuan, Gipuzkoako Txapelketa jokatuko da eta domekan, Gipuzkoako Kros Txapelketa

Oraingo asteburuan, Arrasateko atletak hainbat probatan izango dira: zapatuan, esaterako, pista estaliko Gipuzkoako Txapelketa Orokorreko lehenengo jardunaldia jokatuko da; domekan, berriz, Markel Blanco, Endika Donnay, Marifran Alonso, Maria Jose Gil, Javier Mentxaka eta Cesar Díez Elgoibarren izango den Gipuzkoako Kros Txapelketan izango dira.

Joan den asteburuan, Lander Errasti lehena izan zen pertika jauzian: 2,90 metroko jauzia egin zuen Landerrek.

KIROLDEGIA

### Oraindik ere aukera dago aurtengo urterako kiroldegiko abonua berritzeko

Abenduaren 11n ireki zuten aurtengo urterako abonua berritzeko epea, baina oraindik abonua berritzeko edo aldatzeko aukera dago. Horretarako, AUKEA Kirol Erakundeko bulegoetara jo beharko duzue, edo telefonoz deitu. Abonatuaren datuak aldatu nahi dituztenak, abonua motak aldatu nahi dituztenak eta joan den urteko tarifa bereziren bat izan zutenak bulegoetatik pasatu beharko dira. Gogoratu aurrean Debagoieneko Kirol Txartela izango dela.





MIKEL ARANBURU

Datorren astetik aurrera, Patxi Gorosabalen mutilek fase berria izango dute jokoan.

ERRUGBIA

# Arrasateko errugbi taldeak hurrengo faserako txartela eskuratu du

Oraingo asteburuko partiduko puntuek hurrengo faserako balioko dute

XABIER URZELAI

Arrasate Errugbi Taldeak hurrengo fasean jokatzeko txartela eskuratu du, Kakarraldorekin batera. Bi talde horiek izan dira euren ligaxkako onenak, eta oraingo asteburuan biak izango ditugu aurrez aurre. Puntuek, baina, hurrengo faserako balioko dute.

Argi dago oraingo asteburuan Atxabalpen jokatu den partida oso garrantzitsua izango dela. Lehenengo faseko azken partida izango da, eta zeingehiagoka gogorra izango da, ligaxkako bi

talde gogorrenak izango dira eta aurrez aurre: Arrasate eta Kakarraldo. Bi taldeak hurrengo faserako sailkatuta daude, baina asteburuko partiduan jokoan izango diren puntuek hurrengo faserako balioko dute; hortaz, argi dago Kakarraldo menderatzea hurrengo fasea ondo baino hobeto hastea izango litzatekeela.

**FASE BERRIA, ZAILTASUN HANDIAGOA**  
Datorren asteburitik aurrera, ligaxka bakoitze talde onenek beste liga bat izango dute jokoan: igoera fasea, hain zuzen. Liga horretan, besteak beste, Arrasateko taldea izango da, eta argi dago

datorren asteburitik aurrera bestelako partidua izango direla Atxabalpen; beste maila batekoak, bai, behintzat.

Arrasatek erraz irabazi ditu orain arte jokatuak partidua gehienak, baina aurrerantzean gauzak bestelakoak izango dira. Hala, oraingo asteburitik aurrera, eguraldiak lagunduta zelaiaren egoera ona baldin bada, Garagartzan jokatuak dituzten partidua interesgarriagoak eta ikusgarriagoak izango dira. Hemendik aurrera argi izan Garagartzan hitzordu garrantzitsua izango dela bi astean behin. Bihar, errugbizaleek ezin dute kale egin.

FOTOKIROLA



## Xakean, ibarrekoak protagonista

Gabonetan, Banakako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen, eta ibarreko xakelariak emaitza onak eskuratu zituzten. Guztira, 35 xakelari izan ziren lehian, eta ibarreko hiru lagunak hartu zuten parte txapelketan. Fran Miguel aretxabaletarra bigarren izan zen eta Josu Tornay arrasatearra, hirugarren; horri esker, Arrasateko xakelaria Euskadiko Txapelketan izango da, Fran Miguelekin eta Luis Angel Ortegarekin batera. /X.U.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

#### A MULTZOA

Lasagabaster - Iritz taberna	7-3
Maldifa's - Komando Alpagat	2-13
Betrayer - Al Kaeda	5-4
Saukelu Scream - Makanaki	6-1
Goma2 - Etxerat	3-3
Abocajarro - NS/NC	6-5

#### B MULTZOA

El Ekipo A - Bikain Akademia	3-5
Dribling.es.vg - Aurrera Bolie!	7-1
Estu Ta Larri - Whiskeria	5-2
Etxina! - Billy & The Cowboys	4-6
Fraguel Gol - Fuxxion	3-4
Koka Juniors - AC Surcos	1-7
Saloga - AT Celaya	2-9

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

	P	J
1. Makanaki	10	7
2. You Know	10	7
3. Iritz Taberna	9	7
4. Goma-2	9	7
5. Saukelu Scream	9	7
6. Betrayer	9	7
7. Komando Alpagat	9	7
8. Etxerat	8	7
9. Al Kaeda	5	7
10. Lasagabaster	5	7
11. Abocajarro	4	7
12. NS/NC	4	7
13. Maldifa's	3	7
14. Rayo Aldeano	3	7

### PARTIDUAK

#### URTARRILAK 11, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: El Ekipo A - AC Surcos	AT Celaya
11:00: AT Celaya - Koka Juniors	AC Surcos
12:00: Billy & The... - Aurrera B.	K. Juniors
13:00: Saukelu Scr - Al Kaeda	Billy & The...
14:00: You Know - Maldifa's	Al Kaeda
15:00: Saloga - Fuxxion	You Know!
16:00: Betrayer - Etxerat	Saloga
17:00: Fraguel Gol - Estu Ta Larri	Etxerat
18:00: Dribling - Whiskeria	Fraguel Gol
19:00: Bikain Akad - Etxina!	Dribling

#### URTARRILAK 12, DOMEKA

10:50: Goma-2 - NS/NC	Abocajarro
12:00: Abocajarro - Lasagabaster	NS/NC
13:00: K. Alpagat - Makanaki	Lasagabaster

Deskantsua: Iritz Taberna.

#### B MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	12	7
2. Dribling.es.vg	12	7
3. Koka Juniors	10	7
4. Fuxxion	10	7
5. AT Celaya	9	7
6. Bikain Akademia	9	7
7. Aurrera Bolie	7	7
8. Etxina!	6	7
9. El Ekipo A	6	7
10. Billy & The Cowboys	6	7
11. Fraguel Gol	5	7
12. Saloga	2	7
13. Estu Ta Larri	2	7
14. Whiskeria	2	7

## URTE BERRIA ZIGORREKIN HASIKO DA

### URTARRILA, TXAPELKETA BARIK

Iritz tabernako jokalaria batek urtarrilean ezin izango du jokatu, antolatzaileek hiru partiduko zigorra ezarri diote eta. Modu ona urtea hasteko. Antolatzaileek abenduan jokatu zen azken jardunaldian Lasagabaster taldearen kontra jokatuak partiduan jokalaria bati eraso egiteagatik zigortu dute.

Hala ere, ez da zigor bakarra izan, Maldifa's taldeari fidantza eta bi puntu kendu dizkiote eta. Horiek ere abenduko azken partidua ez zuten behar bezala amaitu. Partidua jokatuaz gain, epaile lanak ere egin behar zituzten, baina ez ziren horretaz ohartu, eta ez zuten partidurik epaitu. Hori dela eta, fidantza eta bi puntu galdu dituzte. Hurrengoan epaitzen ez badute, txapelketatik kanpo izango dira.

### AURTEN, KONTUZ IBILI BEHARKO DIRA TALDE ASKO

Ikusi egin beharko da urteko lehenengo jardunaldian taldeen jarrera zein den, baina alde zuzenetik, Abocajarro eta NS/NC taldeek kontuz ibiltzeko abisua daukate. Bi talde horien azken partidua ere gogorra izan zen; hortaz, argi ibili!

## KIROLAGENDA

### JOKATZEKOAK

#### FUTBOLA

Soraluze - Mondra	Erregionala. Zapatuan. 16:00. Ezozian.
Eibar - Arrasate	Ohor. gazteak. Zapatuan. 17:30. Unben.
Arrasate - Aretxabaleta Almen	Kadeteak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
Urki - Arrasate	2. kadet. Zapatuan. 18:00. Unben.
Arrasate - Behobia	Infantilak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.
Arrasate - Gasteizko Aurrera	Emakumeak. Zapatuan. 15:45. Atxabalpen.

#### ERRUGBIA

Arrasate - Kakarraldo	Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.
Arrasate - Hernani	Kadeteak. Zapatuan. 10:30. Garagartzan.

### SASKIBALOA

Siglo XXI - Kenci Arrasate Seniorrak. Zapatuan. 19:20. Zorrozan.

Aloña Mendi - Kenci Arrasate Juniorrak. Zapatuan. 11:00. Zubikoan.

#### ESKUBALOA

Arrasate - Urola Bigarren seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.  
Loiola - AGR Arrasate Lehen seniorrak. Domekan. 10:15. La Sallen.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Segura ..... 3-2

#### SASKIBALOA

Seniorrak: Kenci Arrasate - Calasancio ... 78-66

#### ESKUBALOA

AGR Arrasate - Urnietako ..... 33-18  
Bidasoa - Arrasate ..... 36-24

## ELKARRIZKETA

OIHANA GARRO/ESKULTOREA

## “Eskulturen bitartez nire barneko mundua erakusten saiatzen naiz”

ARRASATE PRESS

Oihana Garro arrasatearra erakusketa jarri zuen Bilboko La Brocha galerian beste bi lagunekin batera. Oihana Arrasate Irratian izan zen, eta haren eskultura lanen berri eman zigun. Erakusketa gaur arte zabalik izan du.

## Arte Ederretako ikasketak bukatu dituzu. Zertan zabilta orain?

Eskulturaren doktoretza egiten ari naiz. Azkeneko hiru urteotan ez dut ia ezer margotu, eta eskultura lantzen ibili naiz buru-belarri.

## Eskultura da, hortaz, zure artelanaren oinarria?

Gaur egun, bai. Etorkizunean, nork daki! Askotan aldatu egiten dugu, eta agian argazki-gintzara edo bideoa jotzeko joerak nagusituko dira. Baina, oraingoz, eskulturarekin oso gustura nabil.

## Zer dela eta jarri duzue erakusketa Bilbon?

Erakusketa horrek *Re-X* izena du eta hiru lagunek jarri dugu: Irune Jon Ezziak, Hondarribiko Iñaki Oiarzabalek eta nik neuk. 2002an, udan, hirurok Biarritzera joan ginen, Epelde Mardaras galeria-koendako L'Atlantique espazioa atontzera. Zumeta, Balerdi eta beste margolari ezagun batzuen erakusketarako espazioa prestatu genuen. Galeria hartako jabeak gure lanarekin gustura gelditu ziren eta eurekin harreman ona egin genuen.

Epelde Mardaras galeria Guggenheim parean dago, baina zuek jabe berek duten beste galeria baten jarri duzue erakusketa...

Bai, Emilia Epeldek eta Mikel Mardarasek La Brocha izeneko galeria ere badute, eta gure lanak galeria hartan jarri ditugu. Galeria horren helburua da artista gazteei lekua eskaintzea. Hamar urtean egon zen zabalik, eta gero itxi egin zuten. Orain, gure erakusketarekin, berriro ere zabalduko dute.

## Zer aurkitu dezakegu zuen erakusketa horretan?

Erakusketako kartelak prestatzen ari ginenean izen bat jarri behar genion, eta zalantzak izan genituen, lanek ez dutelako gai zehatzik jarraitzen. Norberak lan propioak aurkeztu ditu. Horregatik, espazioari erreparatu genion eta *reapertura*, *reaparición* eta halako hitzak gogora ekarri genituen. X, ordea, jendeak erakusketan zer aurkituko ote zuen ez zekiela jarri genuen. Barruan Joneren lau instalazio, Iñakiren bi eskultura eta marrazki mordoak eta nire lau eskul-



IKER BARANDIARAN

“Ez dut inspirazioarekin lan egiten. Lan asko eginez gero, ideiak sortzen dira”

tura jarri genituen. Jonek bideoa, argazkiak eta bestelakoak erabiltzen ditu, eta muntaia edo instalazioak sortzen ditu.


## Eta zure eskulturak zela-koak dira?

Nik kolorezko ehunekin, plastikoen eta egurrekin lan egiten dut. Horiak dira nire oinarriko materialak. Nik oso barruko eskulturak direla esaten dut, nire barneko mundua forma horien bitartez erakusten ahalegintzen naizelako. Horregatik, oso eskultura geometrikoak izaten dira, ukitzea eskatzen dutenak, sentsazioeko eskulturak. Ez dira pentsatzeko eskulturak, sentitzekoak. Eskultura batzuek ukitzea eta gertu egotea eskatzen dute.

“Gure erakusketarekin batera La Brocha galeria berriro zabaldu dute”

Noiz eta non egiten dituzu eskulturak? Eta non aurkitzen duzu inspirazioa? Bilbo horretarako leku ona da, ezta?

Nik ez dut inspirazioarekin lan egiten, hori topikoa da. Nik erakusketa hori prestatzeko 10:00etan lanean hasi eta 18:00ak arte ibili naiz. Niri, inspirazioa lan egiten etortzen zaizkigu. Norberaren lanekin harremana etengabea izan behar da, eta hor gauzak sortzen dira. Ez naiz inoiz ohetik jaiki, inspirazioa etorri zaidalako. Bilbo leku ona da. Euskal Herrian Bilbo arte erreferentzia da. Hala ere, azpimarratu beharra dago Bilboko Arte Ederretako Museoa Guggenheim baino askoz erakusketa interesgarriagoak egoten direla.



ARRASATE PRESS

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak trenez etorriko dira Arrasatera.

## Txirri, Mirri eta Txiribitonon ‘Trikitraka Trikitron’ ikuskizuna

IKER BARANDIARAN

Urtarrilaren 13an eta 14an, astelehenean eta martitzenean, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek *Trikitraka Trikitron* ikuskizuna eskainiko dute. Amaia Udal Antzokian izango dira pailazoak.


Txirri, Mirri eta Txiribitonon azkeneko proiektuak *Trikitraka Trikitron* izena du, eta estreinatu berri duten lokomotora hori Arrasateko Amaia Udal Antzokira helduko da datorren astelehenean eta martitzenean. Dagoeneko joan den eguaztena ezker sarrerak salgai daude Amaia Udal Antzo-

kian, baita gaur ere, egubakoitza, 17:00ak eta 19:00ak artean.

## BERRIKUNTZA UGARI

Txirri, Mirri eta Txiribitonon lokomotora berria erosi dute, eta herri-erorriko dira, Arrasateko umeen euren lagun berriak aurkezttera. Horrez gain, hiru abesti eskainiko dituzte.

Pailazoekin batera honako lagunak etorriko dira: tren geltokiko nagusia, Maitane; Pepitto, makinista; Galaxi, pertsonaia moderno eta galaktikoa; erakustaldi itzelak egingo dituen Inxala fakirra; Marsel magoa eta Kukulbilo, Oihulari Clown, Hika eta Taupada taldeetako lagunak.



## Ekin Emakumeak elkartearen proposamen mordoak

I.B.

Ekin Emakumeak elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen egunetarako. Aurten ere gogor hasi da Ekin Emakumeak elkarte, eta hainbat aukera eskaini dizkie herriko eta ibarreko emakumeei.

Ekin Emakumeak elkarteak ibarreko emakumeei hainbat aukera eskaini dizkie. Interesa izanez gero, jo berehala izena ematera Pablo Urangan duten egoitzara.

Urtarrilaren 13tik 30era bitartean, 19:00etatik 21:00etara, Igor Otaduiden hastapen mailako sukaldaritza ikastaroa emango du.

Saloiko dantzek ere aurrera jarraituko dute. Urtarrilaren 15etik apirilaren 9a arte, eguazteno, 15:00etatik 16:30era, Natalia Maiztegi dantza egiten erakutsiko du.

Bestalde, orratz lan lantegiak iaz arrakasta izan zuen, eta aurten ere jarraituko du. Urtarrilaren 9tik apirilaren 10a bitartean, eguenero, Asun Mendizabalek emango ditu eskolak.

Eta eskulanak egiten ikasi gura baduzu ere, baduzu aukera. Urtarrilaren 14tik apirilaren 8ra bitartean, martitzenero, izango dira eskolak. Mila Akizu izango da irakaslea. Interesatuok, jo lehenik eta behin izena ematera.



urtarrilean maldan beheara

**%50**  
raino  
Deskontuak

mendiko, oinetako  
eta kirol  
moda sailan

**Gaurdanik**  
**Merkealdiak**

Garibai Etorbidea, 2-6 • Arrasate

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA



San Juan 1 A.  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa:  
943 76 08 04

# UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



## BEHEKODENDATIK

## Deikunde Barrutia

## LORAMENDI KIROL DENDAKUE

XABIER URZELAI

Deikundek ondo ezaguketan dau kirol materialaren gaineko dana, 17 urte daroie-eta Loramendi dendan lanien. Lanien jentekin hartu-emuna eukittie gustetan jako, eta lan politte ei da, jente asko ezagutu eta gauza diferentiek egitten dittuelako. Lagunen bisitak be izeten dittu noix edo noix.

## Amets bat?

Zorionsue izetie.

Eta amets txar bat?

Jeneralien ez dot amets txarrik eukitten.

Egin dozun azken biajie?

Aragoiko Murillo de Gallego-  
ra.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei, jeneralien.

Eta gorrixe?

Aznarren gobernuari.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

*Historias mínimas* da ikusi doten azkena / Lucia Etxebarriaren edo Pablo Coelhoen liburu bat/ Musika lasaixe entzuten dot; *chill-out-a*, adibidez.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Bixek dittut gustoko. Bakotxa bere momentuen.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Neurri handi baten, herri lasaixe dala.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Hori be, momentu bakotxien gauza bat: negu partien etxeko zapatillak gehixago.

Bizi izetera hiri batera juketotan, nora?

Donostia eta Gasteiz gustetan jat. Donostia politte da, eta Gasteiz lasaixe.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Maite Durana.

Eta ezagutu nahiko zeunke-



X.U.

*“Dendan lanien gabitzenok kirolzaliekie gare. Saltziaz gain, geuk be egitten dogu kirola”*

## ena?

Interesantie dan edozein.

Bizio bat?

Konfesabliek, txokolatie eta lo egittie.

Mendi bat?

Aizkorri gustetan jat.

Ze dauketzu sobran?

Kilo batzuk, eta batzuetan, jeni-  
xo txarra.

Eta faltan?

Dirulaguntzatxo bat-edo.

Telebisiñoko programa bat?

Ez dot askorik ikusten.

Eta irratikue?

Irratixe be ez dot askorik entzuten.

Gabonetan saldu biherreko dana saldute?

*“Dagoeneko merkealdixek hasi die, eta neguko erropak dittugu saltzeko”*

Beti gure izeten da gehixago saltzie, baiñe pozik gauz saldu dogunakin.

Baiñe merkealdixetarako itxi-  
ko zeuen zerbait.

Bai, dagoeneko merkealdixetan gauz, eta badau ze saldu: neguko erropak, zapatillak, txandalak...

Herritarrok kirol materialien gastetan dogunakin, sasoi-  
sasoiaren egon biherko gitzake, ala?

Bai, dirue gastetan dogu baiñe kirola egin be egitten dogu.

Eta zuok, kirola saldu bai, baiñe egitten dozue kirolik?

Bai. Dendan lanien gabitzenok harreman zuzena daukogu kirolekin, kirolzaliekie gare.

## NIREBIDAIAHURA/ Gorka Uriarte


Brasilera / 2002an, udan

Joan den urtean, udan, Gorka Uriarte Txipi bigarren urtez izan zen Brasilen. Bigarren aldian, baina, Arrasateko bost lagunekin igaro zuen hilabetea han. Bost lagunak ez ziren Brasilera batera joan. Gorka joan zenerako bi lagunek hilabete zeramaten Brasilen. Rio de Janeiron elkartu ziren denak. Brasilera iritsi eta hurrengo egunean Maracana futbol zelaian izan ziren, Romariok golak zelan egiten zituen ikusten. Gorkaren esanetan, partidu ikusgarria izan zen, eta Bartzelonan eta Valentzian ibilitako jokariak bi gol egin zituen arratsalde hartan. Rio de Janeiroko Flamengo auzoan izan ziren, merkeagoa zelako; besteak beste, Pau de Azucar, Cristo Corcovado eta Copacabanako hondartzak bisitatu zituzten.

Rio de Janeiron autobusa hartu, eta 21 orduko bidaia egin eta gero, Argentinako muga zeharkatu zuten: “Iguazuko urjauziak ikusteko asmoz pasatu ginen Argentinara. Autobusak mugan utzi gintuen, eta benetan merezi du hara joatea. Urjauzi ikusgarriak dira”. Argentinatik Brasilera bueltatu ziren gero. Hegazkina hartu, eta Sao Paulora joan ziren. Sao Paulon aireportuz aldatu baino ez zuten egin, eta Porto Segurorako bidea hartu zuten. Hamar egun egin zituzten Porto Seguron. Parranda ederrak egin zituzten, eta Porto Seguro goitik behera ezagutzeko aukera izan zuten, bi *buggy* errentan hartu zituzten-eta: “Oso merkea zen *buggy*

bat errentan hartzea, 1.500 pezeta inguru, eta gure kasa ibiltzen ginen. Porto Seguron egin genuen azkenaurreko egunean, *buggy*-etako batek errekan amaitu zuen. Barre ederrak egin eta gero, fidantza barik geratu ginen”. Datoren astean ere Brasilen jarraituko dugu, bost lagun horien bidaian oraindik asko dago-eta kontatzeko.

XABIER URZELAI

Argazkia atera eta bost minutura errekarra jauzi ziren *buggy*-arekin.

*“Parranda ederrak egin genituen, bai eta kilometro asko ere”*

*“Guk nahi genuen lekuetara joaten ginen ‘buggy’-ekin”*

## TRUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

## ad Ibabe

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

## ZAHARREN ETXETIK



Hirugarren adinekoek oso gustura hartzen dituzte bainuetxeetako egonaldiak.

ARRASATE PRESS

# Dagoeneko abian dago hirugarren adinekoendako Bainuetxe Programa

IKER BARANDIARAN

**G**izarte Zerbitzuen Institutuak (Imsero) abian jarri berri du hirugarren adinekoak bainuetxeetara joateko gizarte programa berria. Programa horren bitartez, adinduek Espainiako Estatuko zenbait bainuetxetan bi aste pasatxo igarotzeko aukera izango dute, eta salneurri oso merkeekin, gainera.

Hirugarren adinekoendako bainuetxeetako egonaldi horietan mantenu osoko ostatua eta bainuetxeetako tratamendu ugari sartzen dira: osasun azterketa, bainuetzeko ohiko tratamendua eta aseguru turistikoa, beste batzuen artean.

### HAMABOST EGUNEKO EGONALDIA

Txanda bakoitzeko egonaldia hamabost egun ingurukoa izan-

go da, eta, egonaldiotan parte hartu ahal izateko, pentsionista izan behar da, bai erretiratu izanagatik bai elbarritasun motaren bat izateagatik. Alarguna izateagatik pentsionista direnek 60 urte baino gehiago izan beharko dituzte halaberrez. Beste baldintza bat honako hau da: interesatua bere kasa ibiltzeko gai izatea.

Bestalde, gaixotasun larri edo kutsakorrik izanez gero, ezin izango dute Bainuetxe Programa horretan parte hartu. Are gutxiago, interesatuak bainuetxeetako tratamenduak kontraindikatuak baditu.

### GIZARTE ZERBITZUEI ESKAERA EGIN

Programa horretan parte hartu gura duten interesatuek Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute. Hain zuzen ere, 2003ko otsail eta abuztu artean joan gura badute, urtarrilaren

21a aurretik eman beharko dute izena. Eta irail eta abendu artean joan gura dutenek, berriz, maiatzaren 16a baino lehenago eman beharko dute izena.

Bainuetxe Programaren gainera informazio zabalagoa behar izanez gero, jo lasai Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara, eta han gustura argituko dizkizute kezak eta zalantzak.

### AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Bestalde, hirugarren adinekoendako Bainuetxe Programan parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa da erretiratuak izena emateko unean honako agiri hauek aurkeztea: Nortasun Agiriaren fotokopia, Gizarte Segurantzako zenbakia eta eskaria egiten duen gizabanakoaren diru sarrerak ziurtatzen dituen agiria, besteak beste. Ea animatzen zareten, merezi duzue-eta!

## Uribarriko zaharren elkarteko ikastaroak, abian

I.B.

Uribarriko zaharren elkarteak gogor hasi du urte berria, eta dagoeneko hainbat ikastaro jarri ditu abian. Gehienak iazko berberak dira, eta ikastaro gehienak iazko egun eta ordu berberetan emango dituzte.

### OROIMEN LANTEGIA

Beharbada, Uribarriko zaharren elkartearen dituzten ikastaroetatik Oroimen lantegia da bitxiena. Mertxe Acerak gidatzen du eta bi talde daude, martitzeno, 16:00ak eta 19:00ak bitartean. Lantegi horren helburua da erretiratuak oroimena ez galtzeko ariketak egitea eta, bide batez, burmuinari lan eginaraztea.

Hala, buruarekin egiten dute lan, baina gorputza ere ez dute bertan behera utzi gura. Horregatik, aurren, aspaldiko Gim-

nasia ikastaroari heldu diote. Astelehenero, martitzeno eta eguenero, goizez, batzen dira Iturrieko kiroldegian, eta gimnasia hezitzaile batek ariketak egiten laguntzen die.

### ESKULAN IKASTAROAK

Uribarriko zaharren elkartearen eskulanek ere beti izan dute presentzia handia, eta interesatuek ikasturte honetan ere aukera zabala dute. Astelehen arratsaldeetan, ehoziak landuko dituzte eta martitzen arratsaldeetan, margolanak egingo dituzte.

Eguaztenetan, arratsaldeetan, puntu eta gakorratza ikasteko aukera dute gura duten guztiek; eta egubakoitzetan, eskulanak egiten dituzte.

Elkartekoek eskarmentu handia dute, eta oso lan politak egiten dituzte. Dena dela, jendea izena ematera animatu gura dute.



IKER BARANDIARAN

Uribarriko elkarteko ikastaroetan oso lan politak egiten dituzte.

## Musakolako 75 urtetik gorakoak omendu zituzten

IKER BARANDIARAN

Abenduaren 20an, Musakolako zaharren elkarteak auzoko 75 urtetik gorako hainbat erretiratu omendu zituen. Denetara, 38 lagun batu ziren omenaldian: 19 emakume eta beste horrenbeste gizon, hain zuzen ere.

17:00etan, Musakolako elkartearen elkartu, eta askari goxoa eskaini zieten omenduei: txokolate beroa, txurroak eta pastak izan zituzten aukeran. Apetitu ona erakutsi zuten adinduek, baita umore ona ere, eta gustura ibili ziren mahaiaren inguruan berriketan.

### DATORREN URTEKO ZITAREN ZAIN

Omenduak oso giro onean ibili ziren, eta bi ordu luzez izan ziren berriketan. Hala, askaria bukatu eta etxera bueltatzeko ordua iritsi zenean, datorren urteko hitzorduaren zain egongo direla aitortu zuten. Edozelan ere, joan aurretik, erretiratu bakoitzari pasta eta gozoki poltsa bana eman zioten.

Han bildutakoen artean, erretiratu gehientsuenek 75 urte inguru zituzten. Emakume zaharrena Benigna Menéndez izan zen (86 urte). Gizonezko zaharrena, berriz, Narciso Sasiain izan zen. Narcisok 86 urte ditu.





ARRASATE  
**Bitori Altuna**  
Abenduaren 23an, zorionak! Ama, asko maite zaitugu! Etxekoak.



ARRASATE  
**Itziar Rosado**  
Abenduaren 29an, 21 urte. Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE  
**Elviri Gorosabel**  
Abenduaren 18an, urtebetetzea! Zorionak Elviri! Etxekoak.



ARRASATE  
**Irene Lasaga eta Iñigo Lasaga**  
Irenek abenduaren 24an, 8 urte. Eta Iñigok abenduaren 25ean, 6 urte. Zorionak bi! Etxekoak eta lagunak partetik!



ARAMAIO  
**Miren Granados**  
Urtarrilaren 4an, urtebetetzea. Zorionak! Zure lagunak.



ARRASATE  
**Unai Parot**  
Urtarrilaren 6an, 44 urte. Zorionak! Segi, Etxerat, Askatasuna eta etxekoak.



ARRASATE  
**Iosu Uribetxebarria**  
Urtarrilaren 9an, 47 urte. Zorionak! Segi, Etxerat, Askatasuna eta etxekoak.



ARRASATE  
**Nerea Castillo**  
Urtarrilaren 12an, 22 urte. Zorionak! Lehengusuen partetik.



ARRASATE  
**Elena Elorza**  
Urtarrilaren 7an, 32 urte. Zorionak! Lehengusuen partetik.



ARRASATE  
**Angel Balzategi**  
Urtarrilaren 13an, 65 urte. Zorionak! Etxekoak, Felix eta Luis Mari.



ARRASATE  
**Jon Gardoki**  
Urtarrilaren 15an, 26 urte. Zorionak! T.M.T.



ARRASATE  
**Anais Madinabeitia**  
Urtarrilaren 7an, 14 urte. Zorionak! Gurasoen eta Markelen partetik.



ARRASATE  
**Maider Zubillaga**  
Urtarrilaren 7an, 5 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Garrascosa**  
Urtarrilaren 25ean, 4 urte. Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE  
**Jon Ander Amado**  
Urtarrilaren 12an, 14 urte. Zorionak! Etxekoak partetik.



ARRASATE  
**Manuel Arana**  
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak, Garazi eta Eneritz.



ARRASATE  
**Aitor Oskotz**  
Abenduaren 26an, 24 urte. Zorionak Pituso! Arrasateko lankideak.



ARRASATE  
**Julen Barandiaran**  
Urtarrilaren 10ean, urte bat. Zorionak! Ama eta aita.



ARAMAIO  
**Naroa Bideburu**  
Urtarrilaren 8an, 10 urte. Zorionak! Etxeko guztiak partetik.



ARAMAIO  
**Josu Bideburu**  
Urtarrilaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak eta Txirritolako lagunak.



ARRASATE  
**Ariane Perez**  
Urtarrilaren 5ean, 17 urte. Zorionak! Aita, ama, Beatriz eta Oskar.



ARRASATE  
**Beatriz Perez**  
Urtarrilaren 9an, 26 urte. Zorionak! Aita, ama, Ariane eta Oskar.



ARRASATE  
**Ainhoa Urrutia**  
Abenduaren 2an, 5 urte. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE  
**Iker Alvarez**  
Urtarrilaren 10ean, urtebete. Zorionak! Etxekoak, lagunak eta arreba.



ESKORIATZA  
**Aitziber Aranburuzabala**  
Urtarrilaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Laneko lagunak.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

## Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebun hizkiak

## HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

## Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

## Aretz

### Taberna


Markole 5  
943 79 14 67  
**ARETXABALETA**

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zelan deitzen zen orain dela 40 urte Arrasatetik pasatzen zen trena?  
Arrastoa: Monterronen tren horren gaineko erakusketa egon da ikusgai.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA: .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela EGUAZTEN  
GOIZERAKO ARRASATE PRESSERA!

Ian tomate txikitua  
400 g-ko lata

**3x1€** 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

KONTXI IÑARRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Kontxi!  
Galderen erantzun zuzenak:  
Senior mailan eskubaloi talde bi daude :  
AGR Arrasate eta Arrasate.

ARRASATEKOHISTORIA

Trenak Arrasate zeharkatzen zuenean (1917-1967)

JON ANDER RAMOS

Vasco Navarro trenaren 75. urteurrena dela-eta, orduko trenaren gaineko erakusketaz gozatu ahal izan dugu Gabonetan.

Ondorengo lerroetan XX. mendean garraio-bide horrek Arrasaten izan zuen eraginaren gainean egingo dugu berba. Union Cerrajera sortu zen momentutik trenaren beharra ikusi zuten. Enpresak aurrera egin zezan, ikatz eta burdin asko behar zen, eta material hori guztia errepedez ekartzeak atzerapenak eta kostu handiak zekartzan. Hurbilen zegoen tren geltokia Bergarakoa zen. Union Cerrajerako zuzendaritza orduko Espainiako diputatu Eduardo Datorekin elkartu, eta 1914an, trena Arrasatetik pasatzeko proiektua onartu zuten.

Lanak berehala hasi ziren. 1917an iritsi zen lehenengoz trena Arrasatera, eta 1919an, urrian, Gasteiz-Mekolalde trenbidea inauguratu zuten. Garraio-bide berri hark sekulako onurak ekarri zizkion Arrasateko enpresari, baina ez enpresari bakarrik, baita

*Trena zen garraio-bide azkarrena, eta hiriburu-eta joatea erosoagoa zen*

herriari ere. Trena zen garraio-bide azkarrena, eta trenari esker hiriburu-eta joatea askoz ere erosoagoa eta azkarragoa zen. Ordura arte bazirudien Arrasate eta inguruko herriak isolatuta zeudela, eta trenak guztiak lotu eta hurbildu zituen. Trenari esker, hiriburu-eta joatea berriak politikan, gizarte kontuetan, eta kulturaren lehenago iritsi ziren ibarrera.

1923an, Elorregi eta Oñati arteko trenbidea inauguratu zen. Union Cerrajerako zuzendaritza Arrasate Bilborekin lotzen ere ahalegindu zen, Kanpanzar zeharkatuz, baina proposamen hura bertan behera geratu zen. Union Cerrajeraren gainbeherarekin etorri zen trenaren azkena. 1968ko urtarrilaren lehen desagertu zen.



Union Cerrajera lantegiaren aurreko aldean, Vasco Navarro trenbidearen inaugurazio eguna.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urtarrilaren 10a / 48. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Herriko mapa toponimikoa aurkeztuko dute


UBANE MADERA

Eguenean, hilak 16, aurkeztuko dute Aramaioko Mapa Toponimikoa, 18:30ean, kultura etxean. Euskaltzaindiko eta Udaleko ordezkariak izango dira ekitaldian, besteak beste.

Hizkuntzaren normalizazioan toponimiak duen garrantziarekin jabetuta, herriko toponimok batu, normalizatu eta herriko mapan kokatzeko beharra ikusi zuen Aramaioko Udaleko Euskara batzordeak. Horrela, herriko mapa osatzea erabaki zuten, Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlearitzaren laguntzarekin. Pentsatu eta egin. 2001ean ekin zioten lanari eta 2002an Euskaltzaindiaren oniritzia jaso zuen mapak.

### MILA TOPONIMO BAINO GEHIAGO

Mapa horrek 1.200 toponimotik gora jasotzen ditu. Tartean, auzoen, baserrien, erreken, bideen, basoen... izenak ageri dira. Gaur egungo ahozko erabilera eta dokumentu zaharretako datuak hartu dituzte kontuan lekuen eta



ROSA MONDRAGON

Euskara batzordeburua, Amaia Aspe, mapa toponimikoarekin.

gauzen izenak zehazteko orduan. Hori guztia, jakina, Euskaltzaindiak ezarritako arauetara egokituta.

Gero, mapa hori Aramaioko etxe guztietara bidali zuen Udalak joan den abenduan, eta, esan

bezala, datorren egunean aurkezpena egingo dute kultura etxean, batez ere, maparekin sortu diren zalantza guztiak argitzeko.

Mapa toponimikoa Ikermap izeneko enpresak egin du, Aramaioko Udalak adjudikatuta.



### Luis Mari Azkargorta *Kanto*, libre

Luis Mari Azkargorta aramaiarra aske utzi zuten martitzen (hilak 7). Martutenen zegoen. 1988a ezkerro izan da preño Arexolako Kanto baserriko semea. Aramaiorrek harrera egingo diote domekan (hilak 12). 17:30ean *Kanto*-ren jaiotetxetik irten, eta 18:00etan plazan batuko dira. Arrasatera joango dira gero, eta handik Bergarara, 19:00etan manifestazioa izango da-eta.

## HERRITARRENHITZA/Rosa Mondragon • Kazetaria

### Zientzia eta etika ez datoz bat

**D**olly bildotsak hasi zuen klonazioaren bidea eta Wilmutek zuzendu zuen ikerlari ekipoak lortutako emaitzak zeresan ugari eman du 1997tik hona. Animaliekin ez ezik, pertsonekin ere klonazio saiakerak egiteko asmoa erakutsi dute ordutik hona Europako, Amerikako zein Asiako ikerlari askok.

Balantzaren beste aldean, berriz, elizak zuzendu eta elkarte askok bultzatu duten kontrako kanpaina dugu. Etika arrazoien argudioarekin klonazioa naturaren kontra datorrela adierazi dute. Bitartean, herrialde gehienetan dagoen legalitate hutsuneak

polemika eta kontraesana besterik ez dute potentziazten.

Gai horren inguruko azken berria abenduan bertan heldu zaigu. Ameriketako Estatu Batuetako sekta batek iragarri duenez, jadanik jaio da klonatutako lehen gizakia.

Orain, frogatzea geratzen zaie, eta ez da batere erraza, *Dolly* klonazio prozesu batez jaio zela oso eztabaidatua izan baitzen.

Kolaborazio honi jarritako izenburuarekin bat etorrita,



"Klonazioa naturaren kontra datorrela diote"

klonazioa zientzia da? Zientifikoki, klonazioan zelula heldua enbrio bihurtzen da eta bizitza berri bat sortzen du. Horren ondorioz jaioko den umeak hasierako zeluladun gizakia- ren herentzia genetiko berbera izango du. Zientifikoki ere klonazio-

ren bidez zuhaitz genealogikoa ikertzen da, animalien eta pertsonen arteko organo transplanteen aukerak ikertzen dira eta gaixotasunen osaketan eragin zuzena du. Horrela

esanda, badirudi nahiko abantaila dituela, ezta?

Bestalde, elizak eta elkarte eta erakunde batzuek klonazioa naturaz kontra datorrela argudiatzen dute eta lege aldetik dagoen hutsunea lehenbailehen betetzea eskatzen dute. Arrazoi horrek ere logikoa dirudi, bestela galde iezaiozu zure buruari: non dago galdu duen alaba klonatzea edo dirudunen esku egongo da soilik? Aukeratu ahal izango dugu gure umearen sexua, begietako kolorea, ile kolorea, eta abar?

Argi dago, zientzia eta etika ez datoz bat kasu honetan.

## LABUR

### Mendiko zenbait bidetan luiziak daude oraindik

Oraindik ere joan den abenduko euriteek eragindako luiziak daude Aramaion. Mendiko bideetan bakarrik daude, baina dezente handiak dira. Eta zenbait herritarrek inguruak garbitzeko eskaera egin diote Udalari. Hain zuzen ere, luizi handi bat Eskoriatzako mugatik 100 bat metrora dago. Eta beste bat Arrikoitin gora bide baten. Udaletik adierazi digutenez, luizi horiek garbitzeaz gain, akaso harrizko horma ere egin beharko dute, gainerakoari eusteko. Edozelan ere, oraindik hori guztiori erabakitzeke dute.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak).....	945 44 53 40
Botika.....	945 44 50 03
Udaletxea.....	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio).....	945 45 52 52
San Martin Eskola.....	945 44 50 04
Taxia eta autobusak.....	945 44 50 33
Udal kiroldegia.....	945 44 53 35
Postetxea.....	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea.....	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga).....	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	
20:30	20:45	21:05
21:10	21:25**	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:00
16:20	17:00	17:15
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute; autobusa erabili gura duenak, bezperan deitu beharko du honako zenbaki honetara: 629 54 59 23. Bi izartxoan duten zerbitzuak auzoetara joateko dira.

**OHARRAK**

**ODOL EMATEA**

Arabako odol bankuko langileak Aramaion izango dira datorren eguaztenean, hilak 15, odola ateratzen. Betiko moduan, odol emateendako hitzordua ambulatorioan izango da, 16:00etatik 20:00etara.

**ELURRA IRITSI DA**

Urte berria iritsi da, eta urte berriarekin batera, urteko lehenengo elurteak ere bisitatu ditu Aramaio eta bazterrak. Martitzenean, adibidez, Orixol inguruak zurituta ikusi genituen; ez zuen elur askorik egin; bai, ordea, giroa dezente hozteko beste. Horrez gain, eta oraingo astearen amaiera alderako iragarritako eguraldi txarrari aurre egiteko, makinak (traktorea) eta bestelakoak gertu zituzten, badaezpada, Udaleko langileak. Dena dela, albiste hau idaztean oraindik ez genekien eguraldi eskas horren ondorioen berri.

**ZINEMA**


Domekan, *El bosque animado* emango dute; betiko moduan, 17:00etan izango da, kultura etxean.

**GIZARTEA**

**Abian da adinduendako Imersoren Bainuetxe Programa**

Urtarrilaren 21era arteko epea dute Aramaioko pertsona nagusiek Imersoren Bainuetxe Programan izena emateko. Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako, Errioxako, Galiziako, Extremadurako, Murtziako, Valentziako eta Balear Uharteetako zenbait bainuetxetan 15 eguneko egonaldiak aukeratu ditzakete programa horren arabera. Prezio aldetik, gainera, dezente merkeak dira egonaldi horiek. Besteak beste, bainuetxeetan medikuak azterketa egingo die pertsona nagusiei eta gero, mediku horrek esandakoaren arabera tratamendua ezarriko diete.

Bainuetxe Programaren barruan bi txanda daude. Orain, otsailetik abuztura arteko bidaiak emango dituzte, lehenengo txandakoak, alegia. Irailtik abendura arteko egonaldietarako eskaerak, berriz, maiatzaren 16ra arte egin ahal dira. Interesa duenak Aramaioko Udalera jo behar du.



**BOTEPRONTOAN/ Nagore Artamendi · Udaleko idazkaria**

*“Herritarrei esango nieke orain arte moduan hartu-emana izan dezatela Udalarekin”*

**D**onostiatik etorri zaigu Udaletxerako idazkari berria: Nagore Artamendi. Gaztea da, baina dagoeneko esperientzia dezente du, bai ikasten, baita lanean ere. Besteak beste, kontatu digu Deustuko Unibertsitatean egin zituela Zuzenbide ikasketak eta azkeneko urtea Bordelen egin zuela, Erasmuseko beka bati esker. Lanean ere ez da atzean geratu:

**Zelan iritsi zara Aramaiora?** Ikasketak bukatzean, garbi nuen Zuzenbidearen barruan, gehienbat, Hirigintzako gaiak gustatzen zitzaizkidalda. Master bat egin guran hasi nintzen; baina, aldi berean, Eusko Jaurlaritzarako beka eman zidaten, eta gauza biak batera egiten ibili nintzen. Masterra bukatu nuenean, praktikak egiteko aukera eman zidaten Usurbilgo udaletxean. Bi hilabeterako hartu ninduten, baina, iritsi eta berehala Hirigintzako teknikari moduan lana eman zidaten. Iaz, ekainean, bukatu nuen guztia, eta beste zerbaiten bila hasi nintzen. Gipuzkoako Abokatuen Elkargotik iritsi zitzaidan Aramaioko Udaleko eskaintzaren berri. Kontuan hartuta idazkari lanean, batik



*“Idazkari lanean batik bat niri gustatzen zaizkidan gaiak izaten direla eta etorri nintzen”*

bat, niri gustatzen zaizkidan gaiak izaten direla, aurkeztu egin nintzen. Epea bukatzean zegoela aurkeztu nintzen, eta ez nuen espero lortzerik, banekielako jende asko aurkeztuko zela. Baina aurkeztu, eta azkenean, lortu nuen.

**Zein da lanpostuaren gainean izan duzun aurreneko inpresioa?**

Administrazioan lehendik ere ibilita nengoenez, inpresioa neukanaren antzekoa da; hau da, badakit zelako funtzionamendua duen administrazioak. Edozelan ere, asko gustatu zait hemen orain arte egindako lana; lan zuzena da, bereziki, herri txikia delako.

Dena dela, oraindik galdu samar nabil; aurreko idazkariarekin konparatuz, lan egiteko beste modu bat daukat...

*“Asko gustatu zait hemen orain arte egindako lana; lan zuzena da, bereziki, herri txikia delako”*

**KIROLA**

**Oporraldiaren ostean, berriro ere hasi dira areto futboleko Bañerakoak**

Gabonetako oporraldiaren ostean, Bañera areto futbol taldeko jokalariek berriro ere eutsiko diete asteburueta partiduei. Hain zuzen ere, hiru taldeek bihar, zapatua, jokatuko dute.

Horrela, Bañerako gazteek Aramaioko kiroldegian jokatuko dute, 11:30ean, El Pilar Marianistas taldearen kontra; kadete mailako mutilek, berriz, Gasteizen jokatuko dute, Jesus Obrero taldearen kontra, 11:00etan; eta kadete mailako neskek ere Gasteizen dute biharko hitzordua. 12:00etan jokatuko dute, Club Deportivo Aurrera taldearen kontra, Judimendin.

Areto futboleko hiru talde horiek joan den abenduaren azkenurreko astean jokatu zituzten azkeneko partidua.

Horrez gainera, esan beharra dago Bañera kirol taldeak laster ekingo diola bazkideen kuotak eta txartelak berritzen. Abisatuko dute lehenago.

**Eta Aramaio zer iruditu zaitzu?**

Ez nuen ezagutzen, sekula egon barik nengoen. Oso herri polita dela iruditu zait.

**Ez zaizu txikia geratuko Donostiatik etorrira?**

Gauza bat da lan egiteko lekua eta beste bat bizi izateko lekua: lan egiteko leku moduan ez zait txikia iruditu; bizi izateko leku moduan, berriz, oraindik gai hori lotu barik daukat, eta ez dakit zelan ibiliko naizen. Oraingoan, Arrasaten nago, baina oraindik ez dakit. Dena dela, ez litzaidake inportako. Kanpora bizi izatera joan izan naizenean, lekura ohitu behar izan naiz: txikia izan, handia izan, berdina dio. Ez zait inporta, tokatzen zaizuna egin behar da, eta lanak eskatzen badu...

**Herritarrei zerbait esateko?**

Orain arte moduan, Udalarekin hartu-emana izan dezatela. Batik bat, gauzei irtenbidea emateko gaude gu hemen; azken baten, herritarrendako zerbitzua da. Ez dezatela etortzeko beldurrik izan. Eskatzea libre da, kontsultak egitea ere libre da... etor daitezela. Eta ahal dugun neurrian gauzei irtenbidea ematen ahaleginduko gara gu.

## ERRETRATUZAHARRA

Emakumeen  
Asanbladaren  
sorrerarena

**A**rrasateko Emakumeen Asanblada 1976. urtean sortu zen, martxoaren 8tik gertuko egun baten. Elkartu ziren emakumeetako batzuk independenteak ziren arren, beste batzuk sindikatuetaiko zein talde politikoetako kide ziren. Edozelan ere, emakume moduan zituzten arazoekin kontzientziatuz joan ziren, eta horren ondorioz erabaki zuten batu eta taldea sortzea.

Hasieran CCOO sindikatuaren egoitzetan batzen ziren arren, aurrerago, Arrasateko Emakumeen Asanbladak taldearendako leku beharra ikusi zuen. Udalari eskatu zioten lekua, baina hark ukatu egin zien. Hori dela eta, Emakumeen Asanbladak egoitza okupatzea erabaki zuen; horrela, lehenago Seccion Femeninak Grupo San Juanen izan zuen lokala okupatu zuten emakumeok.

Hasierako emakume talde hark, besteak beste, sexualitatea, abortua, sexu erasoak... landu zituen. Ordura arte ia sekula landu ez ziren gaiak.

Oraingo astean, hasierako talde



haren argazkia erakutsi gura izan dugu. Argazkia Nafarroa etorbidean zegoen Errasti tabernan dago aterata.

Honako emakume hauek agertzen dira, mahaiaren bueltan, ezkerretik eskumara: Pili Sagasta, Mila Eraña,

Malen Errasti, Lourdes Uriarte, Amaia Iturriaga, Espe Markaide, Lourdes, Paki Gil, Edurne Arregi, Mariasun Gutierrez (burua besoarekin eusten dagoena), Maite Etxebarria, Pili Zubiria, Espe Arantzeta eta


Lourdes Askasibar.

**Argazkia eta Informazioa:** Arrasateko emakumeak XX. mendean liburua eta Malen Errasti  
**Urtea:** 1977-78. urtea

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Juventud  
Deportiva de  
Mondragon

**J**uventud Deportiva de Mondragon izeneko elkarteak 1944ko irailaren 26an sortu zen. Fisikoki bizkortzeko eta moralki hobetzeko asmoarekin sortu zen elkarteak. Jose Maria Arizmendiarrietak beste futbol zelai baten beharra ikusi zuen, Maalako zelaia beste zerbaitetarako erabili behar zuten-eta. Iturripeko futbol zelaia 1945eko ekainaren 24an inauguratu zuten.



≈ 1960

Futbol zelaia egin eta 17 urtera erabaki zuten Lanbide Eskola eraikitzea. Gaur egun, unibertsitate bilakatu da.



2002

Futbol zelairik ez dago, baina Iturripe oraindik ere kirolgunea da. Saskibaloian, eskubaloian, aroto futboleant, pilotan eta tenisean egin daiteke.

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72


## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



Erdiko kale, 14 • Tel.: 943 79 46 94 • ARRASATE



DESKONTUAK  
DESKONTUAK  
DESKONTUAK  
DESKONTUAK  
**DESKONTUAK**  
DESKONTUAK

**Ez galdu zure armairua neguko jantziz osatzeko aukera!**

**GATZA ETA  
BERAKATZA...**

**Gertuko sukaldea,  
gertu-gertutik!**

**Egunero,**  
13:30ean, 16:00ean,  
19:45ean eta 21:45ean

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**



**GRUPO RK UZ**  
1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

